



ELKARBIZITZA PLANA



**IKASBIDEA IKASTOLA IPI
(2019 -2023)**

2019-2020 ikasturtean egina

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	
	3
1.1.	Bestelako dokumentuekiko lotura.....	3-5
1.2.	Gure ikastetxearen ezaugarriak. Testuingurua.....	5-6
1.3.	Elkarbizitza-Plana egiteko jarraitutako prozesuaren deskribapena.....	6-7
2.	GURE IKASTETXEKO ELKARBIZITZAREN DEFINIZIOA.....	7
3.	GURE IKASTETXEKO ELKARBIZITZAREN DIAGNOSTIKOA.....	7
4.	HELBURU OROKORRAK.....	
	8
5.	HELBURUEN LORPENA BULTZATZEKO EGITURAK.....	
	9-11	
5.1.	Elkarbizitzaren Behatokia.....	
	9-10	
5.2.	BAT taldea (Elkarbizitza-batzordea).....	
	10-11	
5.3.	Berdintasun batzordea.....	
	11	
6.	ELKARBIZITZA PLANAREN JARDUERA-IRIZPIDEAK ETA JARDUERA-ILDO OROKORRAK.....	
	12-14
6.1.	Jarduera-irizpide orokorrak.....	12

6.2.	Jarduteko ildo orokorrak.....	
	12-14	
7.	ELKARBIZITZA PLANAREN URTEKO ZEHAZTAPENA: URTEKO PLANGINTZA.....	
	15	
8.	ELKARBIZITZA PLANAREN ZABALKUNTZA EDO HEDAPENA.....	
	15	
9.	ELKARBIZITZA PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.....	
	15-16	
9.1.	Elkarbizitza Planaren ebaluazioa.....	15-16
9.2.	Urteko elkarbizitza helburuen ebaluazioa.....	16

1.- SARRERA.

Gure ikastetxean pertsonak bere osotasunean garatzen lagunduko duen elkarbizitza positiboa landu nahi dugu, eta horretan ari gara hainbat urtetan. Izan ere, Ikastolako eguneroko elkarbizitzan konfiantza, elkarri entzutea, tolerantzia, errespetua eta enpatia oinarri izatea nahi dugu guztion arteko harremanetan; modu horretan, giro atsegina eta lasaia nagusituko dira menpekotasunak baztertuz.

Gatazkak gehienetan erasoengatik, gaizki-ulertuengatik eta interes ezberdinak izateagatik sortzen dira.

Gatazka horiek guztiak errazago eta denontzat era atseginagoan konpontzea lortuko dugu, horiei aurre egiteko bideak eta baloreak konpartitzen baditugu. Hortaz, alde batetik, gure eskubideak eta bestetik, gure zereginak, betebeharrak eta mugak argitu eta adosteko ahalegin handia egingo dugu.

Ikasleen arteko gatazka-egoerak, berriz, ikasleak hezitzeko aprobetxatu nahi ditugu, baliabide eta balore pertsonalak lantzeko bidea irekitzen digutelako. Beharrezkoak diren kompetentziak garatzea eta gatazkak era egokian bideratzea ikasleen etorkizunerako onuragarriak direla deritzogu.

Elkarbizitza Plan hau, 2019-2023 ikasturteetarako, elkarbizitzaren inguruko antolaketa eta funtzionamendua zehazten duen, D ereduko IKASBIDEA IKASTOLA IPIaren dokumentuetako

bat da. Berak ezartzen ditu gure hezkuntza-komunitateak partekatzen dituen elkarbizitza-ereduaren ildo nagusiak, lortu nahi ditugun helburuak, eta horiek lortzeko eta plana bera ebaluatzeko egokiak iruditzen zaizkigun jarduerak.

Laburbilduz, esan genezake, ikastetxeko elkarbizitza-giroa ona dela, baina, gizartearen isla diren eta kezkatzen gaituzten hainbat joera antzematen ditugu, eta Elkarbizitza Plan honekin horiei modu eraginkorrean aurre egin nahi diegu.

1.1. BESTELAKO DOKUMENTUEKIKO LOTURA:

Aipatu beharra dago, ikastetxeko dokumentu guztietan, modu zuzenean edo zeharka, elkarbizitza positiboa sustatzearen garrantzia aipatzen dela:

Hezkuntza-proiektuak (2016-2017 ikasturtean onartutakoa), besteak beste, helburu hauek ditu:

1. Ikasleak etorkizunerako era integralean heztea eta prestatzea, beraien aniztasuna kontuan hartuta eta euskalduntasunean oinarrituta
2. Hezkuntza komunitate osoaren parte hartzea, elkarlana, koordinazioa eta komunikazioa sendotu bizikidetzaren positiboaren ildotik abiatuz.

Elkarbizitza Plana aipatutako helburuak lortzeko funtsezko tresna izango da.

Antolakuntza eta Jarduera Araudian, dagokien atalean, elkarbizitza eta ikasleen parte hartzea sustatzeko, eta gatazkak konpontzeko prozedurak, elkarbizitza-arauak, neurri zuzentzaileak etab. aipatzen dira, eta horiek plan honetan jasotako printzipio eta jarraibideekin bat etorriko dira.

Tutoretzako Ekintza Plana eta bertan jasotzen diren helburuak ere estuki lotuta daude Elkarbizitza Plan honekin.

Curriculum Proiektua (ICP), metodologia /aniztasunaren arreta /... bat dator plan honetan definitutako elkarbizitza-ereduarekin (adibidea: DBH 1. zikloan lan kooperatiboa martxan jarri da).

Urteko Planean, lehenetsi nahi ditugun elkarbizitza-helburuak zehazten dira eta helburu horiek lortzeko ekintzak antolatuko ditugu.

Plan hau egiteko gure komunitatean indarrean dagoen araudia eta ikastetxea antolatzeko eta kudeatzeko gure dokumentuak izan ditugu kontuan .

Hezkidetzaren Planean zehaztutako helburuen artean ondorengoak ditugu:

- 1.- Ikasbidea osatzen dugun kolektiboetako kideen arteko harremanetan errespetua lehenesten jarraitzea
- 2- Ikastetxean, berdintasunean oinarritutako heziketa eta hezkidetzaren jardunbide egokiak etengabe lantzen jarraitzea
- 3- Hezkidetzaren eta Genero indarkeriaren prebentzioan oinarritutako eskola-ereduan trebatzea.

4- Eskola-komunitate osoaren atxikimendua lortzea, Genero-indarkerian eta sexismoan jatorria duten indarkeria-mota guztiei aurre hartzeko, kasuak lehenbailehen antzemateko eta horiei erantzun egokia emateko.

Elkarbizitza Plana ezinbestekoa da helburu horiek lortu ahal izateko

Beste aldetik, azken ikasturteetako **urteko memoriak** argi azaldu dute elkarbizitza positiboaren eta gatazken prebentzioaren garapenerako egituren antolaketa indartu beharra.

Plan honen helburua, denen adostasunez, gure ikastetxerako nahi dugun elkarbizitza-eredua definitu eta bideratzea da. Gure ustez, elkarbizitza positiboa, berez hezkuntzaren helburu bat izateaz gain, irakasteko eta ikasteko prozesuak hobetzen dituen eskola-giroaren oinarria da, eta eragin zuzena dauka ikasleen emaitzen hobekuntzan.

Ikasbidea ikastolako helburuetan eta zereginetan, (elkarbizitza positiboa sustatzeko landu beharreko) balore hauek aipatzen dira: ikuspegi kritikoa, jarrera ekologikoa eta jasangarria, ikasle aktiboak, errespetua, tolerantzia, enpatia, konpromisoa, berdintasuna, genero-berdintasuna, sexu-orientazioa, genero identitatea, kulturartekotasuna, elkartasuna, ardura, elkarlana, parte- hartzea, euskalduntasuna, euskal kultura sentitzea eta bizitzea.

Balore horiek adostu, ezagutu, erakutsi eta praktikan jarri behar dira, norberak barneratu eta bereak egin ditzan, indarrez edo behartuta ezarritakoak izan ez daitezten.

Balore horiek lantzeko, irakasleon eta gurasoen artean, irizpide nagusi hauek bultzatu nahi ditugu:

- Baloreak ez dira soilik hitzez transmititzen; irakasleon eta gurasoen eredua da baliabiderik eraginkorrena.
- Koherenteak izan behar dugu. Ikasleak errespetatuak eta onartuak sentitu behar dira, haiei errespetua eta onarpena eskatu behar badiegu.
- Arazoen aurrean ikuspegi hezitzailea bultzatuko dugu, gure irakasle eta guraso funtzioarekin bat datorrena: ikasleak heziketa prozesuan daude eta gure laguntza behar dute gogoeta egiteko, konpromezuak hartzeko, erabakiak hartzeko,...

1.2.- GURE IKASTETXEAREN EZAUGARRIAK. TESTUINGURUA

Ikasbidea Ikastola IPI 1973. urtean sortu zen; eta Arabako Foru Aldundiaren menpean egon zen, harik eta 1985. urtean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari transferitu zitzaion arte, Arabako beste ikastola batzuekin batera. Hezkuntza Proiektuak dioten bezala, **“Ikasbidea Ikastola” euskal ikastetxea da, titulartasun publikokoa, integrala eta ez konfesionala**”.

Ikasbidea Ikastola IPI Arabako Durana herrixkan dago kokatuta, Arratzu-Ubarrundiako udalerrian, Gasteiztik 7 kilometrora.

Gutxi gorabehera, ikasleen % 22 inguruko 42 herritatik datoz, eta Gasteiztik gainerako % 78a. Gasteizko Lakuako esparru bat dagokigu; beraz, Duranakoek izan ezik, beste ikasle guztiek garraioa behar izaten dute ikastolara etortzeko.

Gure ikastola ikastetxe integrala denez, 4 hezkuntza-etapa eskaintzen ditu:

- Haur Hezkuntza (2-6 urte)
- Lehen Hezkuntza (6-12)

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16)
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Ondokoa (16-18)

Aipatzekoa da, 2 urteko hiru gelak, ikastetxearen baliabideekin funtzionatzen badute ere (giza baliabideak eta ekonomikoak), Gasteizko Izarra haur eskolan daudela kokatuta. Horrekin lotuta aipatuko dugu ikastetxearen barnean ere etapa bakoitzak eraikin propioa duela.

Gaur egun, **1.271 ikasle** ditugu. Haietatik 266 Haur Hezkuntzan daude; 458 Lehen Hezkuntzan (maila bakoitzean 3 linea); Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 432 ikasle (1. eta 2. DBHn 5 lerro eta 3. eta 4. DBHn 4 lerro eta Curriculum Aniztasuneko talde bana); eta Batxilergoan, 115 ikasle, maila bakoitzean 3 taldetan banandurik.

Guztira, **151 irakasle** gara: 77 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta 74 DBHn eta DBHOn. Ikasle eta irakasleez gain, **administrazioko** eta **zerbitzuetako 45 langile** daude: jangelako 32 begirale, 7 sukaldari, 4 atezain eta 2 idazkari administratibo.

Merezi du ikastetxeak dituen beste zerbitzu batzuk nabarmentzea, erabiltzaile ugari baitituzte:

Eskola-garraioa: HH-LH: %90; DBH %92; Batxilergoa: %92. Beraz, ikaslegoaren % **91**k garraioa erabili behar du ikastetxera etortzeko. HH eta LMHko ikasleen autobusetan begirale bana dago. DBH eta DBHOk ikasleen autobusetan, berriz, ez.

Jantokia: 2010-2011 ikasturtetik aurrera, Administrazioak kudeatzen du zuzenean. Bigarren Hezkuntzan, 2015-2016 ikasturtetik aurrera jardunaldi trinkoa daukagunez jantokia erabiltzen duten ikasleak **HH eta LH**koak dira. Dena den, DBHko ikasleek jantokia erabiltzeko eskubidea daukaten arren, ez dute erabiltzen. 2019-2020 ikasturtean **639 ikaslek** erabiltzen dute jangela, HH eta LHko ikasleen % **88** inguru. Jantokiko zereginak eta funtzioak aurrera eramateko, berariaz liberatutako irakasle bat eta 26 begirale daude Duranan eta liberatutako irakasle bat eta 4 begirale Izarran.

Eskolaz kanpoko ekintzak:

- **Bidelaguna proiektua**, astean zehar lau arratsaldetan, zailtasunak dituzten ikasleei laguntzeko.
- Jantokiko denbora librean (12:00 – 14:30), eguerdian, **HH eta LH**ko ikasleentzat antolatzen diren **ekintzak** burutzeko AMPAk kontratatutako 22 begirale daude: HH 12 begirale eta LHn 10. Ekintzak honako hauek dira: antzerkia, ingelesa, euskal dantzak, saskibaloia, musika-koreografia, Crescendo abesbatza, xakea,...
- LHko ikasleentzako asteburuetakoko ekintzak: saskibaloia topaketak, txirrindulari eskola eta xake-txapelketak. 2-4 begirale
- HH eta LHko ikasleentzako oporraldiko ekintzak: udalekuak, uztailean. Begirale-kopurua ikasle-kopuruaren arabera da.

Familiei buruzko hainbat datu:

Azken urteotan egindako Ebaluazio-Diagnostikorako informazioaren arabera ikastetxeko familien maila ekonomiko eta kulturala ertain-altua da.

Familiek edota tutore legalek, orokorrean, garrantzia ematen diete ikasketei (bai atal akademikoari eta baita harremani dagokionari ere) eta beraiekin daukagun harremana ona da.

1.3. ELKARBIZITZA PLANA EGITEKO JARRAITUTAKO PROZESUAREN DESKRIBAPENA.

Gure Elkarbizitza Plana egiteko jarraitu dugun prozesua honako hau da:

1.3.1. Sentsibilizazio-fasea: 2018-2019 ikasturtean zehar, **ikasle talde** bat aukeratu zen elkarbizitzaren definizio bateratu bat egiteko. Ikasleak hainbat alditan elkartu ziren Urko Belategiren gidaritzapean. Definizio berria egiteko prozesua antolatu zuten: tutoretza-saioetan gaia landu eta taldeka definizio berriak proposatu eta emaitza desberdinak kontutan hartu ostean, definizio berria adostu zuten. 2019-2020 ikasturtean, **gurasoak** eta **irakasleak** ere beraien definizioa erabaki dute "Guraso elkartearen" eta mintegien bitartez, hurrenez hurren.

1.3.2. Diagnosi-fasea: 2018-2019 ikasturtearen 3. hiruhilekoan, berritzegunean informazioa eskatu eta aurreko urteetako galdetegiak moldatu ondoren, ikastetxeko estamentu guztiei pasatzeko ikastetxeko elkarbizitzaren inguruko galdetegi bat prestatu zen. 2019-2020 ikasturtearen hasieran emaitzak ezagutu dira.

1.3.3. Helburuen zehaztapena eta jardueren plangintza: 2019-2020 ikasturtearen hasieran galdetegiaren emaitzak aztertu eta ondorioak atera dira. Horietan oinarrituz, Elkarbizitza Planaren helburu orokorrak eta urteko helburuak zehaztu dira. Urteko helburuak gauzatu ahal izateko egingo diren ekintzak, epeak, zehaztapenak, arduradunak...landu ostean "Behatokian" aurkeztu eta onartu dira (2019ko azaroaren 21ean).

2019-2020 ikasturtean zehar egindako Elkarbizitza Plana Zuzendaritzan, Behatokian eta Klaustroan aurkeztu da, eta horien ekarpenak kontutan hartuta, guztien onespenerarekin behin betiko Elkarbizitza Plana osatu da.

2.- GURE ESKOLAKO ELKARBIZITZA DEFINIZIOA.

Eskola-komunitateko kideen arteko berdintasunean, ongizatean eta errespetuan oinarriturik, zoriontsuagoak izateko eraiki behar dugun harreman baketsua da, nor bere burua ezagutu, parekoa ezagutzen ikasi, komunitatean lan egiten eta bizitzen ikasteko ezinbestekoa den formakuntza ahalbidetu eta indartzen duena, elkartasuna eta kooperazioa funtsezko balio gisa sustatuz.

3.- GURE IKASTETXEKO ELKARBIZITZAREN DIAGNOSTIKOA.

Gure ikastetxeko Elkarbizitzaren Diagnostikoa egiteko azken urteotan egindakoa kontutan hartu bada ere, batez ere, 2018-2019 ikasturtearen 3. hiruhilekoan, diagnosi-fasean, ikastetxeko estamentu guztiek erantzundako galdetegiaren emaitzak hartu ditugu kontutan.

Diagnostiko honetatik atera ditugun **ONDORIOAK** honako hauek dira:

1. Ikastetxeko komunitate osoaren identitate kolektiboa, batez ere Ikasbidea Ikastolako partaide izateko sentimenduak, bultzatzen jarraitu beharra nabaritu dugu.
2. Ikastetxean betidanik saiatu gara komunitateko kide guztien arteko harremanak ondo bideratzen eta sortu izan diren gatazkei irtenbide baikorra eta hezitzailea bilatzen. Dena den, jarrera hau elkarbizitzarako oso garrantzitsua denez, gure eguneroko lanean bide beretik jarraitzeko beharra ikusten dugu. Gure ikastetxea IPIa denez, HHren, LMHren eta Bigarren Hezkuntzaren arteko koordinazioa indartzen jarraitzeko beharra ikusi da.
3. Ikasle batzuen artean bizi izan ditugun hainbat gatazka ikusita, gatazka horiei nola aurre egin aztertzen jarraitu behar dugu.
4. Ikastetxera datozen ikasle berriendako ikastetxeak Harrera Plan bat dauka. Dena den, hurrengo urteotan ikastetxeko egoeran aldaketak egongo balira, Harrera Plana bera ere berrikusteko edo egokitzeko beharra egon daiteke.
5. Eskola-komunitateko kide guztiek beraien eskubide eta betebeharrak ongi ezagutu behar dituzte, gatazkak sortzen diren momentuetan hobeto kudeatu ahal izateko.
6. Ikasleen arteko elkarlana bultzatu beharra ikusi dugu.
7. Elkarbizitza Plana (elkarbizitza kontzeptua, antolaketa, kudeaketa...) eskola-komunitate osoari zabaldu beharra ikusten dugu guztion arteko elkarbizitza onuragarriagoa izan dadin.

4.- HELBURU OROKORRAK.

Aurreko ondorioak kontuan izanda, beraiekin erlazionaturiko helburuak zehaztu dira:

1. Ikastetxean elkarbizitza positiboko giroa sortzea, non komunitateko kide guztiak parte direla sentituko duten.
2. Eskolako kideen arteko komunikazioa hobetzea (HHren, LMHren eta Bigarren Hezkuntzaren arteko koordinazioa ahaztu gabe), enpatiaz jokatzuz eta denok askatasunez hitz egitea bermatuz.
3. Ikasleen arteko tratu txarren eta sortzen diren gatazken konponbide egokiak eta hezitzaileak lantzen jarraitu. Horretarako, berdinen arteko tratu txarrak eta gatazkek konpontzeko irizpide batzuk adostuta baditugu ere, horiek egoera bakoitzera moldatu beharra, eta hortan jarraitzeko eta trebatzeko beharra ikusten da; beti ere, gatazka hauei irtenbide hezitzaile bat eman nahian. Aurten abian jarri ditugun programek hortan lagun gaitzakatelakoan gaude: **Upright, Bizikasi** eta **“Ikasle laguntzaile”**.

Aurrez aipatutakoaz gain, "Ikasle laguntzaile" programak ikasleei beraiei, egoera horiek kudeatzen jakiteko tresnak ematen dizkie, eta hori ezinbestekoa dela uste dugu gure gazteen heziketan. Familien parte hartzea ere ezinbestekoa dela uste dugu, eta beraz, hori bultzatzen jarraituko da.

4. **Harrera Plana** berrikusi eta gure eskolako egoera berrira egokitzea.
5. Ikastetxeko elkarbizitza-arauak denen artean eta adostasunez lantzea eta erabakitzea, eta Eskolako kide guztien eskubideak eta betebeharrak jakinaraztea eta lantzea.
6. Ikasleak elkarrekiko lanean trebatzeko estrategiak planteatzen jarraitzea [IK/KI (ikasketa kooperatiboa) eta HH-n eta LMHko 1. eta 2. mailetan "Zirkulazio librea" metodologia.]
7. Elkarbizitza Planaren hedapen egokia egitea, Plana zertan datzan eskola komunitate osoari argi azalduz.

5.- HELBURUEN LORPENA BULTZATZEKO EGITURAK

5.1. Elkarbizitzaren Behatokia (EB).

Elkarbizitzaren Behatokia (EB) ikastetxeko elkarbizitza kudeatzeko organoa da.

Elkarbizitza Behatokiak jardun demokratikoa eta norbanakoaren autonomia sustatu nahi ditu, berdinen arteko harremanak bultzatuz. Ikastetxeko kide guztiek, beren erabakiak hartzeko unean, errespetuan, elkarriketan, negoziazioan eta akordioan oinarritu beharko dute.

5.1.1. Elkarbizitzaren behatokiko kideak:

- Zuzendaritza-taldeko kideren bat.
- Gurasoen 2 edo 3 ordezkari (LH eta DBH/DBHOkoak).
- Ikasleen bi ordezkari (DBH/DBHOkoak).
- Jantokiko arduraduna.
- DBH eta DBHOko orientatzailea.

- HH eta LHko aholkularia.
- Elkarbizitza Planaren arduraduna (DBH eta DBHOko irakaslea)

Sektore bakoitza bere taldea antolatzen eta taldekideak dinamizatzen ahaleginduko da, kide guztiek partaidetza aktiboa izan dezaten.

5.1.2. Elkarbizitzaren behatokiaren funtzioak:

1. Elkarbizitza Plana, bere garapena eta balizko aldaketa ebaluatzea eta hobekuntzak proposatzea.
2. Eskolako kide guztiak baloratuak izatea eta guztion iritziak kontutan hartzea guztion parte-hartze aktiboa bermatuz.
3. Ikastetxeko partaide izateko sentimendua sustatzea harreman-arlo guztietan.
4. Aukera eta tratu-berdintasuna zaintzea, prozesu eta harreman guztietan.
5. Hezkuntza Komunitate guztiari harreman positiboak sustatzen laguntzeko jarduerak proposatzea, (jaialdiak, antzerkiak, emozioak ondo bideratzeko tailerrak...) batez ere, gatazkak konpontzeko gaitasunak eta komunikazio-ahalmenak landuz.
6. Eskolaren elkarbizitza-arauak aztertzea (agerikoa: AJA, __Ikasleen Eskubide eta Betebeharren Dekretua... eta ezkutukoa: idatzita ez dagoena), araudiaren diagnostikoa eginez eta hobetzeko neurriak aholkatuz.
7. Hezkuntza-komunitatea osatzen duten estamentu guztien hobetzeko proposamenak, kezkak eta iradokizunak jasotzea, harremanak hobetzeko, gatazkak konpontzen ikasteko eta bizikidetzara osasuntsua lortzeko.
8. Egunerokotasunean sortzen diren beharrak eta gatazkak kudeatzea eta horiek bideratzeko ekintza-protokoloak proposatzea.
9. Berdinen arteko balizko tratu txarrak edota indarkeriazko kasuak detektatzea (triptikoak, galdeketak, testak... osatuz) eta adostutako neurriak lehenbailehen martxan jartzen direla bermatzea.
10. Inguruko beste erakunde, organizazio eta entitate batzuekin lankidetzara sustatzea, elkarbizitza positiboa eta kooperazio-kultura sustatzeko.

5.1.3. Elkarbizitzaren behatokiaren funtzionamendua:

Behatokiak berak zehaztuko du zein izango den bere funtzionamendua; horretarako, betiere, Behatokiaren asmoak, funtzioak, baliabideak eta partaide-kopurua izan beharko dira kontutan. Oso ondo zaindu eta kudeatu behar da ikasleen parte-hartzea, benetan eraginkorra izan dadin.

Bere funtzioak era egokian bete ditzan, gutxienez, hiru-lau bilera egingo dira:

- Ikasturtearen hasieran (Behatokiaren eraketa eta lanaren plangintza eta difusioa).
- Bigarren hiruhilabetean (lanaren jarraipena eta balorazioa)
- Ikasturte amaieran (ebaluazioa eta memoria).

5.2. BAT taldea. Elkarbizitza-batzordea

Bizikasi ekimenak ikastetxe bakoitzean BAT (Bullyngaren Aurkako Taldea) egitura sortzea ebazten du.

5.2.1. BAT taldeko kideak:

- Ikastetxeko zuzendariordea
- Ikasketaburua
- Aholkulari/orientatzailea
- Bizikidetza-arloaz arduratzen den irakaslea

5.2.2. BAT taldearen funtzioak:

1. Jazarpen-kasuak ebazteko prozesua koordinatuko du.
2. Elkarbizitzaren Behatokia jasotako iradokizunak aintzat hartuta, ikastetxean bizikidetza positiboaren esparruan garatu beharreko ekintzak gidatuko ditu.

5.2.3. BAT taldearen funtzionamendua:

- Bere funtzioak era egokian bete ditzan, gutxienez, astean behin elkartzen da, asteazkenetan.
- Horrez gain, beharra dagoen guztietan bildu da.
- Egiteko horretan jarduteko, ezinbestekoa da BAT taldeko kideek prestakuntza sendoa izatea, eta hori 2019-2020 ikasturtean jaso da, Gasteizko Berritzegunean.
- Prestakuntza horretan, bizikidetza positiboaren eraikuntzan esanguratsuak diren alderdiak, eskola-jazarpenaren kontzeptualizazioa eta balizko kasuak ebazteko aldagaiak azaldu dira.
- Dena den, datozen ikasturteetan eskaintzen diren formazioetan ere parte hartzen jarraituko dugu

5.3. Berdintasun batzordea

Duela 4 urte inguru, DBH 3. eta 4. mailako eta Batxilergoko ikasleek sortutako taldea da. DBH eta Batxilergoko ikasleekin Hezkidetzaren inguruko gaiak lantzea da batzordearen helburua.

5.3.1. Berdintasun batzordeko kideak:

DBH 3. eta 4. mailako eta Batxilergoko ikasle boluntarioak (gela bakoitzeko bat edo hainbat)

5.3.2. Berdintasun batzordearen funtzioak:

1. Azaroaren 25a eta martxoaren 8a antolatzea ikastetxeko estamentu guztietako partaideen laguntzarekin (ikasleak, irakasleak, irakasle ez diren langileak eta gurasoak)
2. Egun horietako aldarrikapenen inguruan, DBHko eta Batxilergoko ikasleak sensibilizatzea. Horretarako, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, genero

indarkeriaren prebentzioa, sexu-aniztasuna, harreman afektibo sexualak eta bar lantzen dituzte DBHko eta Batxilergoko ikasle guztiekin, modu eta sakontasun maila desberdinetan, beti ere ikasleen heldutasun maila kontutan hartuta.

5.3.3. *Berdintasun batzordearen funtzionamendua:*

- Ikasturtea hasi bezain laster, irailaren bukaeran edo urriaren hasieran, aurreko ikasturtean batzordean parte hartu zuten ikasleak biltzen dira (DBH 4. mailakoak eta Batxilergokoak). Lehenengo bilera horretan, DBH 3. mailako ikasleei, batzordean parte hartzeko gonbidapena nola luzatu erabakitzen dute, eta ikasturtean egingo dutenaren ildo nagusiak zehazten dituzte.
- Ia astero biltzen dira, horretarako baimena zuzendaritzan eskatu ostean.
- Azaroaren 25a eta martxoaren 8a hurbiltzen doazen heinean, beraien proposamena azaltzen diete zuzendaritzako kide bati, orientatzaileari eta elkarbizitzaren arduradunari.
- Azken horiek, berdintasun batzordearen proposamena aurrera eramateko behar diren baliabideak eskura jartzen dituzte.
- Berdintasun batzordeko kideek, azaroaren 25ean eta martxoaren 8an, beraiek gidatutako jarduera desberdinak gauzatzen dituzte:: tailerrak gelaka, hausnarketa-saioak gelaka edota talde handiagotan, jokoak, “world-kafea” DBHko 2. zikloan eta batxilergoan,...
- Horrez gain, kanpotik ekarritako hizlariekin hitzaldiak antolatzen dituzte DBH 4. mailako eta Batxilergoko ikasleentzako, besteak beste autodefentsa feminista,...

6.- ELKARBIZITZA PLANAREN JARDUERA-IRIZPIDEAK ETA JARDUERA-ILDO OROKORRAK .

6.1. *Jarduera-irizpide orokorrak.*

Hezkuntza–komunitate osoak kontuan izango ditu jarduteko irizpide orokor hauek:

- Elkarbizitza positiboaren sustapena esparru guztietan eta curriculumeko arlo eta ikasgai guztietan egingo da.
- Elkarbizitzaren araudiari buruzko erabakiak hartzeko partaidetza lehenetsi behar da.
- Arauak eta erabakiak denon eskubideen eta ongizatearen bermea sustatzen duten elementuak izango dira, eta hala ulertu eta partekatuko ditu komunitate osoak.
- Hezkuntza komunitateko pertsona heldu guztiek, egoera gatazkatsuren bat ezagutzen badute, esku hartu edota arduradunei jakinaraziko diete.
- Gatazkak konpontzeko lehenetsia adiskidetzeko eta kalteak konpontzeko prozedurei emango zaie.
- Gatazkak kudeatzeko lehenengo arrazoiak aztertu behar dira, eta, hala badagokio, neurri hezitzaileak ezarriko dira.
- Ikasleek gatazkak kudeatzeko duten modua arlo eta ikasgai guztietako elkarbizitzarako gaitasunaren ebaluazioan kontuan izango da.

- Jazarpen-kasuen, eta edozein bereizketa- eta indarkeria-motaren aurrean, tolerantziarik ez.

6.2. Jarduteko ildo orokorrak.

- Lehentasunezkoak izango dira ikastetxeko bizimoduan **partaidetza sustatzeko** jarduerak, hala nola:

- **Ikasleek** modu aktiboan parte hartzen dute ikastetxeko bizimoduan.
 - **DBH eta DBHO:**
 - Berdintasun batzordea
 - Normalkuntza batzordea
 - Geletako ordezkariak
 - Ingurumen batzordea
 - Ikasle laguntzaileak
 - OOG
 - Elkarbizitzako behatokia
 - **HH eta LH:** maila hauetan, ikasleek orokorrean ez dute zuzenean parte hartzen ikastetxeko bizimoduan, aurrean osatu dugun “Ikasle Laguntzaile” taldean parte hartzen duten LH 5. eta 6. mailako ikasleek kasua izan ezik.
- **Familien** parte-hartzea ere handia dela esan genezake:
 - Ikasturte hasierako bilerak
 - Familia/tutore bilerak
 - Guraso elkarteak
 - OOG
 - Elkarbizitzako behatokia
 - Eskolak antolatutako hitzaldiak. Arrakasta handia izaten dute LH 6, DBH 3 eta DBH 4ko orientazio-bilerak
 - Atal honetan aipatzekoa da, **HH eta LH**ko familiek duten parte-hartze handia. Aurrez aipatutakoez gain, hauetan modu aktiboan parte hartzen bait dute:
 - Tailerrak
 - Ikastetxeko azpiegiturak hobetzeko auzolana (gelak margotu, jolastokia berrantolatu eta txukundu,...)
 - Normalkuntza batzordea
 - Jai egunen antolaketa
 -
- **Irakasleek:**
 - Klaustroa
 - Mintegi, ziklo edota tutore-bilerak
 - Elkarbizitzako behatokia.
 - OOG
 - Proiektuak (euskararen normalkuntza, elkarbizitza, kalitatea, sare-hezkuntza, jasangarritasuna,...)

- Era berean lehentasuna izango dute **Komunikazio-kanal** argi eta eraginkorrak mantentzera bideratutako jarduerak, hala nola, zuzendaritzaren eta klaustroaren arteko komunikazio-kanala, irakasleen eta ikasleen artekoa, irakasleen eta familien artekoa,...
- **Tutoretza-jarduerako planak** ere lehentasuna izango du banakako tutoretza eta taldeko tutoretza kontutan hartuz: talde-kohesioa lortzeko estrategiak, hezkuntza emozionala, gizarte-trebetasunak, teknologia berrien erabilera arduratsua (ASAJER), elkar ezagutzeko baliabideak, autoestimua hobetzeko estrategiak, erabaki bateratuak hartzeko bideak, gatazkak prebenitzeko edota modu bateratuan aurre egiteko jarduerak,.... Horiek lantzeko, “**Bizikasi materialak**” (LHko 5. eta 6. mailetan eta DBHko 1. zikloan), “**Upright** programako” (DBHko 1. zikloan) materialak eta **Ikastetxean sortutako** materialak erabiliko dira.
- **Ikasleen artean elkarreragin positiboak sustatuko dituzten metodologiak** erabiliko dira, ikasteko modu desberdinei erantzun, eskola inklusiboaren printzipioa errespetatu eta ikasle guztien arrakasta lortuko dutenak. **IK/KI programa** martxan jarri da. Horrez gain, HHn eta LHko 1. eta 2. mailetan ezartzen ari diren metodologia, “**Zirkulazio librea**”
- Interes berezia jarri behar zaio **gatazkei aurre hartzeari eta horien konponketari**:
 - **Gatazkei aurre hartzeari** dagokionez, “**GELETAN GIROA NOLA HOBETU**” dokumentuan idatzita ditugun aholkuak ezagutzea eta ahal den neurrian aplikatzea eskatuko zaie irakasleei.
 - Elkarbizitzak berezkoa du gatazka; **gatazkak edota portaera desegokiak** ikasleak heitzeko aukera modura identifikatu behar ditugu, balore pertsonalak lantzeko bidea irekitzen bait digute. Kasu horietan, hauek dira gure helburuak:
 - ❖ Ikaslearekin portaera desegokiari buruzko hausnarketa egitea
 - ❖ Egindakoa onartzetik elkarbizitza egokia berreraikitze bidea jartzea
 - ❖ Egindako kaltea, ahal den neurrian, konpontzea edo konpentsatzea: ordainketa (apurketaren baten kasuan), institutuaren mesederako lanak (garbiketa,..), arratsalderen bat geratzea, barkamena eskatzea (nor bait mindu den kasuan), ordu batzuetan gelatik baztertzea (eskolan bertan), eta salbuespen egoeretan “espeditenteen prozedura” edo kanporaketa.

Hemen aipatzekoa da, **disziplina zaintzeko ardura guztiona dela**, eta hasieran **irakaslea izango dela hori bideratuko duena** (eguneroko jarduera arruntan). DBHn arazoa zaildu egiten bada, zikloetako koordinatzaileak, tutoreak edo orientatzaileak parte hartuko du; Ikastetxeko edozein partaidek **Elkarbizitzari kalte larria** eragiten dion jarrera desegokiren bat sumatzen badu, Zuzendaritza Taldera jo beharko du. Zuzendaritza taldeak gaur egun indarrean dagoen legedia kontutan hartuta, gatazken protokoloa martxan jarri, egoera aztertu eta egokia den erabakia hartuko du.

2019-2020 ikasturtean “ **ELKARBIZITZA PROTOKOLOA**” egin eta adostu da, kasu horietan, jarraitu beharreko ildo orokor batzuk zehazten dituenak. Hala ere, salbuespenak egin daitezke, kasu bakoitza aztertu ostean.

2019-2020 ikasturtean ikasleen arteko hainbat gatazka puntualen kasuak “**Ikasle laguntzaile**”en bidez bideratu ditugu, emaitza onekin.

- **Bullying-a eta ziberbullying-a** espreski edo berriaz landuko dira, biktimaren autoestimua indartuz, arazoan parte hartu duten gainerakoak ahaztu gabe (jazarleak, ikusleak,...), eta

partaide guztiei ezarri beharreko neurri hezitzaileak azpimarratuz. Ildo horretatik, bereziki garrantzitsuak dira gure ikastetxearentzat:

- **Ikasle laguntzaileak.** Gatazka- eta jazarpen-egoerak etapa goiztiarretan detektatzen laguntzen dizkigutelako.
- **Pikas metodoa.** Bullying-egoera bati aurre egiteko hirugarren mailako esku-hartze metodoa da, neska-mutil talde batek hainbat denboraz beste neska edo mutilen bat, edo gehiago, erasotzen dituen egoeretan lantzeko bereziki aproposa.

Egoera horiek antzemateko, beste batzuren artean, “**Bizikasi materiala**”k erabiltzen dira.

Ikastetxean, horrelako kasuren baten **susmoa dagoenean “Eskola-jazarpeneko” Protokoloa** jartzen da martxan.

- Irakasle, ikasle, familia eta irakasleak ez diren langileei zuzenduriko formazio-planak garatuko dira, gatazkari eta kudeatzeko moduari buruzko hezkuntza-ikuspuntuaren inguruan.
- Hezkidetzako eta kulturarteko eskola baten alde lan egingo da, berariazko planak garatuz, adibidez, Hezkidetzeta Plana.
- Ikastetxeko elkarbizitza, ebaluazio-saio guztietan jorratu beharreko gaia izango da. Datuak bildu eta proposamenak egingo dira, ondoren ikastetxeko zuzendaritzaren bidez, Elkarbizitzaren Behatokiari bidaltzeko.

7.- ELKARBIZITZA PLANAREN URTEKO ZEHAZTAPENA: URTEKO PLANGINTZA.

Elkarbizitza Behatokiak urtero elkarbizitzarako helburuak proposatuko ditu, eta garatu beharreko jardueren diseinuan eta jarraipenean parte hartuko du.

Jarduera horiek gauzatzeko formazio-saioren bat egiteko beharra ikusten bada, Ikastetxeko Urteko Planaren prestakuntza-atalean jasota geratuko da.

Ikasturte bukaeran Urteko Elkarbizitza Planaren ebaluazioa burutuko du, eta hurrengo ikasturteko Elkarbizitza Plana garatzeko irizpideak adostu, eta helburuak eta jarduerak proposatuko ditu.

8.- ELKARBIZITZA PLANAREN ZABALKUNTZA EDO HEDAPENA.

Oso garrantzitsua deritzogu Elkarbizitza Plana eta Elkarbizitzako Urteko Planaren hedapen egokia egitea ikastetxeko estamentu guztien artean.

Elkarbizitza Plana eraginkorra izateko eta guztion artean ondo hedatzeko ikasturtean zehar ahalik eta momentu gehien erabili nahi ditugu:

- Ikasleekin: tutoretza saioak, ordezkarien bilerak...

- Gurasoekin: ikasturte hasierako geletako bilerak, tutore edo irakasleekin egiten diren banakako elkarrizketak...
- Irakasleekin: Klaustroak, Ziklo eta Mintegi bilerak, Formakuntza-saioak...
- Estamentu guztien ordezkariekin: Ordezkaritza Organo Gorenaren bilerak.

Horrez gain, ikastetxeko web orriak (www.ikasbidea.hezkuntza.net) aukera paregabea emango digu Elkarbizitza Plana ikastetxeko partaide guztiei helarazteko.

Ikasturte bakoitzeko helburuak ere, Urteko Planaren barruan, Ikastetxeko webgunean jartzen dira.

9.- ELKARBIZITZA PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.

9.1. Elkarbizitza Planaren ebaluazioa

Elkarbizitzaren Behatokiak gutxienez lau urtetik behin egingo du Elkarbizitza Planaren ebaluazioa. **Ikastetxeko zuzendaritzak eta Elkarbizitzaren Behatokiak alderdi hauek aztertuko ditu:**

- **Hezkuntza-komunitateak Elkarbizitzaren Plana zenbateraino ezagutzen duen.** Kideak denborarekin aldatu egiten direnez komenigarria izango litzateke bi urtetik behin ikasleei eta familiei galdera-sorta bat pasatzea.
- **Zabalkunderako eta sentsibilizaziorako prozeduren eraginkortasuna.** Bi urtez behin betetzen den galdera-sortaren emaitzen arabera, Elkarbizitzaren Behatokiak erabakiko du erabiltzen ari diren zabalkunde- eta sentsibilizazio- prozedurak bere horretan mantentzea, edo aldatzea. Azken kasu horretan, beste prozedrua edo jarduera batzuk proposatuko ditu.
- **Elkarbizitza Planaren ezarpen-maila eta arrazoien azterketa..** Hainbat ikasturtetik behin, Behatokiak aztertuko du zer neurritan gauzatu edo ezarri diren Elkarbizitza Planaren helburu orokorrak, aldi horretako urteko planaren helburuetan. Behatokiak Elkarbizitza Planaren ezarpen-maila baloratuko du, ondorioak lortuz, arrazoiak aztertuz eta egoki iruditzen zaizkion aldaketak eta eguneratzeak proposatuko ditu.
- **Elkarbizitza Planak zenbateraino erantzuten dien Hezkuntza-komunitatearen ezaugarriei eta beharrei.** Urtero galdera-sorta pasatuko da, guztien ongizatea eta ikastetxeko parte izate-sentimendua indartuko duen elkarbizitza-giroa lortzeko gauzatzen ari diren jardueren inguruan, hezkuntza-komunitateko sektoreen asebetetze-maila jasotzeko.
- **Ikastetxeko elkarbizitzaren bilakaera.** Hiru hilabetero ikastetxeko zuzendaritzak ikastetxeko elkarbizitza eten duten egoeren berri emango dio Elkarbizitzaren Behatokiari, eta baita hartutako neurrien berri ere. Behatokiak bildutako datuen ikerketa egingo du urtero. Datuak aztertuko dira, honako hauek balioztatuz: elkarbizitza eten duten egoera-kopuruaren bilakaera eta egoera mota; hartutako neurri-mota, eta eginiko esku-hartzeak.

Ikasturteen arteko azterketa konparatiboak egingo dira joerak antzemateko eta Elkarbizitza Plana edo hura garatzen ari den modua berrikusteko proposamenak egingo dira

- **Elkarbizitza Plana eguneratu egingo da testuinguruaren baldintzak aldatzen badira,** edota bere eginkizuna betetzen ari ez bada.

9.2. Urteko elkarbizitza-helburuen ebaluazioa

Ikastetxeko zuzendaritza arduratuko da ikasturterako planifikatutako helburu eta jarduerak kudeatzeaz, eta Elkarbizitzaren Behatokiari emango dio kudeaketa horren berri. Ebaluazio hori Urteko Memorian jasota geratuko da, eta hurrengo ikasturteko elkarbizitza-helburuak ezartzerakoan kontuan hartuko da.